

GOIKOATEXEARI erantzuna:

Azkenengo YAKINEko "alkar-izketan" argitara genduan zuk idatzi karta. Garrantzi aundiko puntuak ikututzen dituzu bertan, bere egiturari dagozkionak alegia.

"YAKINEk obe luke olerkirik edo literatur-idaztirik ez artu" diozu bertan. Arrazoiz diozu ere. Auxen da gure asmoa. Olerkiak ezik bestelako literatur-lanak ez genituan nai. Baiño zerorrek diozun bezela literaturari buruzkoak bai, ots filosofi edo iakintz-aldetik egiñak. Ipuiak, literatur-saioak eta era ontako idazlanetarako ba-dira beste aldizkari ugari. Goikoetxeak arrazoiz dionez ez du YAKINEk "bere igitaria aien saillean sartu bear". Ez genduke iñola ere iñorren aurka edo kaltez jokatu nai!

Olerkiak? Lazkao'koak ziotenez izango dira an emen Euzko Gogoan eta orrelako goi-mailletako aldizkarietan beren olerki-saioak aurkezten ausartzen ez diradenak. Gontzat YAKIN ondo omen letorke-ta...

YAKINen joerari buruz iritzi ugariago nai genituzke. Askori daukana atsegin zaie. Beste zenbaiteri atseginiago litzaieke filosofi ta teoloji gaietara mugatuko balitz. Dana dala YAKIN aldizkaria landara berria degu oraindik eta gure naitara zuzendu genezake. Eztegu ontan geron iritiziz ezer erabaki nai. Azaldu etzazute denak zeuon iritziak eta aria-arian irizkidetasu-nera iritxiko gera. Goikoetxean oartu ontan denak bat gatzela derizkiot,ots, gure YAKINEk jakintz-maillakoa bear dula izan.

Iñaki Bastarrika